

LEGAMIA, NEURRIA, KOLORE ZURIA

Zaldibarrera joaten naizen aldiro bi gauza datozkit burura: Jose Mari Iriondo akordeoilaria, Zaldibarko trikitixaren historian entzute handiko egilea baita eta Manuel Lasarte bertsolaria, nahiz eta Leitzan jaio eta, besteak beste, Aian eta Orion bizi, Zaldibarko plazan abestu baitzuen aurreneko aldiz hamazazpi urterekin, beraz, bere burua bertsolari egiten hor hasi zen.

Lehenengo puntuaz den bezainbatean, akorduan daukat edozein aitzakia ustiatuz trikitilariak nola zihoazen kale bate-tik bestera xirriki-xarraka, trikitixan zehar hatzak truke eta truku jokoetan bezala dantzaraziz eta erritmorik kiribillkorre-nak sartuz, agian hostoen artean aurki daitezkeen formak os-patu zale, agian etengabe txuntxurrean diharduten gauza txi-kien lagun. Doinuei jira eta bira eman beharraren eman beharraz zoro eta kabitu ezinda, trikitilariak ustekabeak ba-natzen zituzten koloretan, iradokizunetan. Jendea zabuka eta kate motzetan lotuta zetorren kaleko ikuskizunari atxikitzen zen pozarren ozta, begirik nekatu gabe hari guztiari jarraituz, egonean bidaiari eta ameslari.

Baina lehiaketetan zen, batez ere, trikitixak goia jotzen zue-nean, elkarrekin egote bat izateaz gain, beti badagoela zer ho-betua gogoratzeko zeuden lehiaketetan. Hor ikusiko zenituen lehiakideak hasieran inguru-mingurura zaku bete hurbilduta nor bere zortzikoan ibiltzen, ariketen prestaketa gisara trikiti-xak zeharo hazi arteko eskailera maila guztiak probatzen. Gero, oholtzara igo eta non zuztarra, han adarra aldarrikatu nahian arituko ziren norik prestatuko entsaladarik gatzozpin-

duena, nork eskainiko saskirik hornituena elkar zirikatuz. Eginahalean eta esku beteka ziharduten eta entzuleen artetik ere txalo zartak ahurka jasotzen zituzten. Azken txanpan zeudenean eta iltze goriari helduta, herri xehearen legamiatzat zeukaten trikitixaren azken erakustaldia ematen zuten.

Nola ez, jaietan ere trikitixa protagonistarik nagusiena zen. Zakur zahar eta ernea izanik, urte osoko asmoak (ametsak) zein porrotak (ajeak eta osteak) berdintzat jo nahi horretan balantza bilakatzeko joera zeukan. Kontuak egindakoan, ordea, balantza erraien alde jartzen zen eta, horrela, zuku gastrikoak jariatzen zituen eta bihotza odolusten zitzaion zirraraz betetako jai haietan. Doinuak muturreraino eta herrestan eramaten zituen eta airean zirriborroak zarraparra egin, azkenean leher gaizto eginda gelditzeko.

Jai horietariko batean plazaren erdian egon behar izana saihestuta, kale kantoi batean trikitilari mutua ezagutu nuen. Agi denez, handik aspaldian ikusi gabekoa zen. Kanpoko giroarekin ez zuela bat etorri behar adieraziz edo, zazpi nota solte jo zizkidan, airean zazpi uso-dantza eginaraziz eta gero bakar bat, uhinik moldatuena izan zena. Ez gatz ez berakatz izanda ere, berak ere zer sinatua bazeukala agertzeko modua izan zen hura, tirrit ere ez zuela balio maiz aurpegiratu bazioten ere, berak ere nolabaiteko bermerik eta zer erakutsirik bazeukala adierazteko bidea. Bat egin nuen bere xumetasunarekin, horretarako aurrez aurre jarrita eta bihotzez begiratz txintik ere esateke eta lekuko eginik. Azkenik, hatzak gero eta gogortzenago zihoazkiolarik lortu arteko onik ez zeukan trikitilari apalak pieza bat jo zuen, tarteei eta isiltasunei zirrika eginenez. Hauspoa eman zidan eta belarri gozagarri gertatu zitzaidan. Jakin badakit elkarren hurrean egon ginela eta begizta batean lotuta.

Urteak joan eta urteak etorri, oraindik ere asaldaketa datorkidan trikitixa barruan adierazpen eta ezusteko jasarik daraman

objektutzat dut, hainbat sokatako korapiloak askatzen dituen irtenbidetzat eta eskua nori luzatu beti dagoela dioen alegoriatzat.

Manuel Lasarteri dagokionez, gozotan egotera bultzatzen zaituen bertsolari horietariko bat dela esan behar, aska otzana opatzen duena, isurian samur, bertso-eran leun eta berezko, agian hau guztia Franki baserri jaiotetxearen ondoko erreka oroigarri duelarik. Horregatik berarengana ezer gabe hurreratzten den orok beti aurkituko du lasaitua, aterpea. Honetaz gain, nolakotasuna edo nola esana aipatuko nuke, dotorezia adierazteko beste modu bat dena, Lasartek ez baitzuen inoiz zabarkeriarik egin, beti aritu zen txukun, esaldiak tolestatur eta destolestatur, amaigabea zirudien ariketan eta, bide batez, hizkuntzari ekarpenak eskuzabal eginez. Ezaugarriokin batera, besteak beste, neurria ere azpimarratuko nuke, jarduna bertso-tan jartzeko dohaina, gauzak arrastoan sartzekoa (deitu egokitasuna, deitu doitasuna), hein handi batean, errementari izandakotik zetorkiona, hortik errima eta puntu zehatzak bezain ozenak (airean ere lerdetik zirautenak), burdina malgotu eta gotortu ondorengoak bezalakoak. Bizitzan aritutako beste ofizioek ere zerikusi handia izan zuten bere bertso-gintzan, bertso batetik bestera mugitzen zenean, orduan ere ferratzaile ibiltzen baitzen (beti bide zuzenean pausoz pauso) eta morroi (gailurtzat zeukan hoskidetasunari obedituz).

Hor ikusiko zenuen zutik eta zutabe, non jantzirik bazeukan txapelari noizbehinkako ferekak egitearekin batera hitza zegokion tokian (juxtu-juxtuan han) jartzen, makilarekin kaxkax jotzen denean bezala. Hor entzuleei zubiak luzatzen eta haien adierazteko nahietara bertso moldeak ipintzen. Eta zegoen tokitik, gerra, osasun arazoak eta arrebaren zein alabaren heriotzak izan zirela-eta bizitza zailak mamitu zion itzaletik begiratzen zuen, begiratzen zizun zurrun eta zurbil, beti ere begirunea ezarriz.

Honetaz gain eta pertsonalki bi gauza irakatsi dizkit Lasartek: nor bere lekuan egoten (naizena eta dudana baino gehiago nahi ez izaten, alegia) eta ostentzen jakin beharra (edo zuhurtzia).

Zaldibarren egon nintzen azken aldia ondo gogoan dut udazkena izan zela. Oskarbi eusten bazion ere, noizbehinka euri zipitzik bazen eta epeletik jotzen zuen. Egin nuen aurreneko gauza zeruari eta etxeko hormei begira jartzea izan zen, ustean bainengoen ezkilek elizaren otoitzak airean brodatzea nola, hala hormek ere erabaki zutela Manuel Lasarte gaztearen kantaera inprimaturik gordetzea.

Jarraian, herriaren erdia hartzen duen psikiatrikoan jarri nuen arreta. Orban zuriak burutik buru harrapatu eta barneraino sartu zitzaidan gorputz osoa txindurritzearekin batera. Bere bakarrean oldoztutako zuria, denboraz eta tokiz besteko proposamena, lurreratu nahi ez duen hegazkinarena. Zuria ilun munduan. Zuria eta esanezina ahoaren barruan oratuta eta kopetaren baitan itsatsita jarri zitzaizkidan.

Eta horrela, bide honetatik mistikara iritsi nintzen, edozein arrazoi eta kontu logiko gaindituz haratagoan kokatutako pentsamoldera. Jarraian eremu ezezagun bezain infinitu batek goitik behera harrapatu ninduen. Hasierako hitzak laino eta lauso artean desegindakoa, isiltasunez bete nintzen eta Zaldibarko psikiatrikoaren mugei begira geratu luzaro, jadanik nire baitan eta edozein hesiren gainetik hegaldaka eta antzemanekin nabaritzen nituen mugei bezala. Eraikuntzari begira, egiturarik hauskorrena iruditu zitzaidan, hatz artean deseginez doan hautsezko hegoa edota kotoi azukreztatuzko irudia, baina, era berean, gogorra zirudien, harrobirik sartuena. Biluzia, gorputz maxkalari itsatsitako pijama gardena eta bidena-bar jantzia, gaztelua hainbat gazteluren barruan. Alderik alde errepatatu, luze-sakonean aztertu eta “autobahiketa” hitza mamurtu nuen minutu batzuetan zehar. Horretan nenbilela,

bat-batean eta berriro ere orban zuriarekin topatu nintzen. Aurkez aurke jarri nintzaion:

–Nor zaitut? –galdetu nion barnean luzaro edukitako zerbait azaleratu nahi izatean bezala.

Ez nuen erantzunik jaso. Nahiz eta ez nion ezer aitortu, ni-retzat jadanik hain erreala zen zuria (gauzarik errearena, ausentzia bezala) iparraldeko itsasorratza zitzaidan.

Ondorio hauen artean nengoelarik, Wittgensteinen hiru hausnarketok hurbil sentitu nituen: «Subjektua ez dagokio munduari, munduko muga bati baizik», «Ordenan-ez-egotea ez-identitatea bezalakoa da» eta «Zorotasuna ez da gaixotasun gisa ikusi *behar*. Zergatik ez hartu bat-bateko izaera aldaketa modura, edo *gutxi* gorabehera bat-batekoa?».

Herria uzterakoan, hortz itxurako teklen artean gozo-mikatzak inarrosiz joan zihoazen eta etorri zetozen trikitixa doinuak eta Manuel Lasarteren irudia, bere argalean eta iharrean bizia, oroimenean gelditu zitzaizkidan eta hain grabatuta neuzkan, ezen Jose Mari Iriondoren trikitixa pieza bat ahapetik abesteari ekin bainion eta ahapetik baita errezeitatzeari Manuel Lasarteren zenbait bertso ere (zehazki esateko hain trebea zen zortziko txikiaren moldean). Eguraldiak lepo beretik jarraitzen zuen eta alde horretatik ere babestuta alde egin nuen Zaldibartik, azken unean psikiatrikoaren gainean ikusi uste nuen eta burutik kendu ezinik neukan karezko hodeia (artean nora ezean zebilena) bihotz barruan eramanda.

Amaia Iturbide